



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO APIRILAREN 12AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Garcia Palaciosen eta Josune Estella Arranzek.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA:

***2016KO MARTXOAREN 22KO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek, 2016ko martxoaren 22ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- “LORE BERRI” INGURUGIRO ELKARTEA, ELKARTEEN UDAL
ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO ESKAERA.**

Erabakia hartu aurretik elkarteari informazio gehigarria eskatzea erabaki da.

Beraz, puntu hau mahai gainean uztea erabaki da.

3.- 2016KO APIRILAREN 1EKO 2016/0313 DEKRETUA BERRESTEA.

Ordezko Alkateak, 2016ko apirilaren 1ean, 2016/0313 zenbakidun dekretuaren bitartez zera erabaki zuen:

“ALAITZ AIZPURUA LABAKA andereak, Usurbilgo Udaleko Ordezko Alkateak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1.985ko Legeko 23.3 eta 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau

IKUSIRIK

ESP. ZENBAKIA: HZ.07/2015-0113

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, GOMAVIAL SOLUTIONS, S.A. enpresak Ugaldea industrialdeko 18A - 4. pabiloian erabileraz kanpo dauden neumatikoak balorizatzeko ezarri nahi duen jardueraren osasun-txostena helarazi du. Osasun-txostena ALDEKOA da.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2015-0113

ESKATZAILEA: GOMAVIAL SOLUTIONS, S.A.



Usurbilgo Udala

JARDUERA MOTA: Erabileraz kanpo dauden pneumatikoak balorizatzea
NON KOKATUA: Ugaldea industrialdea 18A-4 pabilioa

Udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, ondoko txostena eman du:

ESKAERA: jarduera ezartzeko baimena
JARDUERA: Pneumatikoen osagaien bereizketa
ESKATZAILEA: Gomavial Solution, S.A.
KOKALEKUA: Ugaldea industrialdea 18A-4 pabilioa
ESP. ZENB: HZ.05-2015/113
AURREKONTUA: 1.840,77 + 2.150= 3.990,77€

AURREKARIAK

2015 otsailean Gomavial Solution, S.A.k jakinarazten du, Atallun kokatzen zen jarduera Ugaldea 18-4 pabilioan kokatuko dela.

2015eko martxoaren 13an txostena idatzi zen, aurkeztu behar zuen dokumentazio osagarria zerrendatuz.

2015eko apirilaren 23an, jarduera ezarri ahal izateko eskatutako dokumentazio osagarria aurkezten du

5015eko uztailaren 10ean, alkateak jakinerazpena helarazten dio dokumentazio osagarria aurkeztea eskatuz.

TXOSTENA

Pneumatikoen osagaien bereizketarako jarduera ezartzeko, eskatutako dokumentazio osagarria aurkeztu du, gai den teknikariak sinatuta eta elkargo ofizialaren zigiluarekin.

Pabilioaren azalera 315,90 m² da. Instalaturako potentzia indarra 30 kW da. Suaren karga 304,5 Mj/m² da. Gainontzeko ezaugarriak proiektuan jasotzen dira.

Pabilioa A-63 (C/SE) Ugaldea eremuan kokatzen da, eta eremuko ezaugarrien fitxak hurrengoak adierazten ditu:

EZAUGARRIEN FITXAK (TESTUAK). A-63 (C/SE) UGALDEA

1.- IRIZPIDE ETA HELBURUAK

Dagoen eraikuntza nagusiaren mantentzea eta egungo industriaren egokitzeko zabalpen xumeak, Eremuaren birurbanizazioa eta birgaikuntza. Sarbideen hobekuntza.

2.- AZALERAK

Arearen azalera: 47.963 m²

Eraikuntzak okupaturako azalera: 28.340 m²

3.- ERABILERAK

Erabilera industrial izango da soilik. Ez dira dauden modulazio edo zatiketa gehiago onartuko.

4.- ERAIKUNTZEN BALDINTZAK

Egungoak.



Usurbilgo Udala

5.- JARDUKETA

Hitzarmen-sistema ezartzen da.

6.- KUDEAKETA

Kudeaketa ekimen pribatua.

7.- ANTOLAMENDUA

Egungo eraikuntza nagusia finkatzen da eta ordenazioz kanpo deklaritzen da Eremurako ezaugarrien fitxen plano arabera adierazitako elementuak.

Arau huen ordenazio zehaztua izaera orientagarria du, Eremuko Plan Bereziak zehaztu beharko duena.

Lur esparru honetan burutuko den edozein eskuartzetan Lurraldearen antolamendurako artezpideetako xedapenak (8. Kapituluak, 6.8.8.5 Apartatua) eta Ibairen eta Erreken Ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Planak ezartzen duen araudia (E.1. Apartatua Urpean gera daitezkeen zonei buruzko berariazko araudia) bete beharko dira.

“Ertzen antolamendua: hidraulikari buruzko alderdiak, uholde guneak 1.5. Planoa”-n 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldiko uholdeak izan daitezkeen eremuak eta Lehentasuneko Fluxu-Eremua agertzen dira, URA-Uraren Euskal Agentziak emandako uholde-arriskudun eremuen kartografiaren arabera, Usurbilgo Udalerrian Oria ibaiaren jokaera hidraulikoa ezagutzeko azterlanaren barruan egina, 2012ko urriko data duena. Kartografia honekin batera, Araudiko III. Eranskinean Agentzia honek darabiltzan “Lurra erabiltzeko irizpideak, urpean gelditzeko arrisku-mailaren arabera” jasotzen dira, gorde beharko direnak nahiz eta uren arloko araudiak dioena ere derrigorrez bete beharko den.

Lur esparru honetan burutuko den edozein eskuartzetan Administrazio Hidraulikoaren baimena beharko da eta horretarako, azterketa hidraulikoa eta ingurumen arlokoa egin beharko dira aurrez horrela badagokio ibilguetako uraren joan-etorrian nolabaiteko aldaketaren bat eragin dezaketean jardueretan. Azterketa hidraulikoak, dagokionean, segurtasuna ziurtatzen duten neurriak eta ibaiaren gora edo behera dauden beste hirigintzako eremuetan jaso daitezkeen uholde-arriskuen eraginei erantzuteko neurriak zehaztu beharko ditu.

8.- PLANEAMENDU OSAGARRIA

Barne Erreformatarako Plan Berezia izapidetzea beharrezkoa izango da.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko, ezarritakoa bete beharri dagokionez hurrengoak adierazten da:

IHOBE S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak egindako EAEko lurzoruaren polutzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioan, Usurbilgo Udalak jarduera ezarri nahi duen lurzorua ez dogo inbentariatua edo dokumentuan sartuta lur kutsatuak izan daitezkeen arriskuarekin.

Goian aipatutakoei jarraiki, ALDEKO txostena ematen da, aipatutako baldintzak betetzen diren artean. Jarduera izapidetzeko hurrengoak gauzatuko dira:

1. Espedientea jendaurrean jarriko da GAO-n iragarki bidez.
2. Espedientea Osasun Saliera bideratuko da, txostena luzatu dezaten.
3. 3/1998 Ingurumen Legean ezarritakoari jarraituz, orain aurkezten dena Jarduera Saikatu da. Hori dela-eta, Udalak ezar ditzakeen baldintzen kalterik gabe, Neurri Zuzentzaileak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ezarriko ditu

Usurbil, 2016ko martxoaren 17an
Udal aparejadorea
Felix Aizpurua Arzallus



Usurbilgo Udala

Udal aparejadorearen txostena irakurri ondoren,

ERABAKI DUT

LEHENDABIZI: GOMAVIAL SOLUTIONS, S.A. enpresak Ugaldea industrialdeko 18A - 4. pabiloian erabileraz kanpo dauden pneumatikoak balorizatzeko ezarri nahi duen jarduerari ALDEKO INFORMEA EMATEA, proposaturiko kokamendua eta gainerako ingurutzailak, egungo Planifikazio Urbanistikoekin eta Otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurugiroaren Babeserako 3/1998 Legeak xedatutakoarekin, ados daudelako.

BIGARRENA: Era berean informatu, kokalekuan eta bere inguruetan efektu gehigarriak sor lezakeen antzeko jarduerarik ez dela.

HIRUGARRENA: Erabakia eta Espediente osoa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera bidali dadila, Neurri Zuzentzaileak ezar ditzan.”

Gauzak horrela, ordezeko alkateak hartutako erabakia kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: Ordezko Alkateak, 2016ko apirilaren 1ean, 2016/0313 zenbakidun dekretuaren bitartez hartutako erabakiak berrestea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarra dia bukatutzat eman du, goizeko 8:45ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.